



PERUTXU ETA JENTILA

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

ibaizabal



PERUTXU ETA JENTILA

Juan Manuel Etxebarria Ayesta



ibaizabal



Itsasoan handi ura
basoan ugari zura,
euskaldun izan, euskaraz bizi
zainduaz euskal kultura.

Denborak agertuko digu elurra mendian.





Behinola, Perue artzain zaharra bizi zen Gorbeialdeako baserri batean bere emazte Marie eta hiru semeekin. Ehundaka arditako artaldea zeukan eta bizitzeko lain ateratzen zuen, handik gaztai, hortik bildots, azuri eta abarrekin.

Baina gau batean ikaragarritzko alauriak entzun zituzten Itxinako Atxulotik, eta artalde guztia aztoratu egin zen eta mendian zehar galdu.

Gure artzain zaharrak bazekien jakin ere nor izan zen, Supelegorreko jentil gaiztoa, nor bestela?

Gau osoa itzarririk egin eta gero, egunsentiko kuku-rukuotsarekin batera kanporatu zen artzain errukarria

artaldearen bila baina ardi bat esan eta bera ere ez zuen aurkitu etxe ondoko landa zeharretan.

Ez zuen bat ere dudarik. Bazekien eta ondo gainera nor izan zen lapurra, baina nor ausartu jentil gaiztoari aurka egiten?

Egunak, asteak, hileak eta urteak igaro ziren eta gure artzain zaharraren etxean ezeukia eta gosea besterik ez zegoen. Zer egin?

Ba, hara. Gurasoen zahartasuna ikusita, Txomin anaia zaharrenak honela hitz egin zuen etxekeen aurrean ikararen ikaraz berbartu eta guzti:

—Hara, neureok. Beste artzain batzuegandik jakin dudanez, hori Supelegorreko jentil gaizto hori morroi bila dabil eta ni neu joango naiz etxerako lain irabazteko, goseak hil baino lehen.

—Ez horixe —erantzun zion aitak—, hori jentil hori lapur hutsa eta gaiztoa baino gaiztoagoa dela entzunda daukotsiet nire aurrekoei. Horregandik disgustua baino ez duzu aterako eta ez zaitez atomatu joan ere egiten.

—Berdin dit aita, joan noa eta konponduko naiz zelanbaist, belea beltzago ez da egingo eta.

Esan eta egin. Andramari martiko kuku-hotsa entzun zuenean, hartu morrala lepoan badaezpadako batzuekin eta joan egin zen etxetik Txomin anaia zaharrena.

Atxuloko begitik sartu zen Itxina barrura. Atxulo, Lekandako haitzaren erdian dagoen berezko zuloa da eta hortik datorkio Atxulo izena. Behin bertaraz gero, batera begiratu zein bestera begiratu, ikuspegi liluragarri biren aurrean geundeke.

Hazduirik hazdui zihoan gure Txomin eta handik lasterrera Supelegorreko kobazulo mitikoa barruntatu zuen, Mari Anbotokoak neguak pasatzen omen zituen kobazuloa, eta koba handi horren atakan jentil gaiztoa. Nolako jentila gero?

Handia, indartsua, lumaz betea, hagin handiduna, larruz jantzia, adikuna txarrekoa eta fetura edo itxura trauskilekoa.

Txomin artzain gaztea, bildursartuak jota, ia-ia konorte gabe geratu zen aurrera egiteko adore



barik. Baina etxeko bizimodu larria gogoratuta, ausartu egin zen jentilari berba egiten, eta honela egin zion birdurkilik eta dardar-hotsean:

—Eup!, jentiltzar, morroi bat behar duzula jakin dut hortik nonbaitetik eta hemen natorkizu kridu beharrak egiten ondo baderitzazu!

—Nigana? Ja-ja-ja! Atomatu ere egitea!

—Bai, zugana zeugana, zer ba?

—Zer ba, diostazu? Zuk ez duzu balio nire beharretarako, makal, indarge, txankamehe, meko, kokoterre horrek!

—Ezetz? Hori ikusiko dugu, denborak agertuko du elurra mendian!

Jentilak, bere harrera gogorra goiti-beheitik mutila ez zela atxantetan ikusirik, baldintza edo eta aginduak ematen hasi zitzaion esanez:

—Hemen ez dut nahi haserririk gero! Jakin ezazu ondo nire legea: hemen nik neuk agintzen dut beti eta ez dut onartzen neure esana baino besterik. Lehenengo haserretzen denari narru zati bat kenduko zaio lepo-bizkarretik, nik neuk zeuri edo zuk zeuk neuri, entzun didazu?



—Bai, hobe ez!

—Erdu Supelegorreko kobazulo honen atakara. Kobazulo hau handia eta ederra da. Ni neu hementxe bizi naiz, bakarrik, nire senitartekoak hortik zehar bizi dira sakabanaturik eta zaharrenak Aralar mendian. Nik gaizto fama daukat izan ere banaizelako eta hemen, sarrerako ezker aldean, daukat neure txokoa, behesua, harlanduzko mahai eta poialak eta gainetiko tresna guztiak. Urregorria ere badaukat zertarako hartarako.

Izatez, Supelegor kobazulo hau mitikoa da Mari Anbotokoaren egoitzatariko bat delako.

Orain ez dago hemen. Udaberriaren hasieran Anbotora joaten da eta joan ere egin da urtero bezala hegaz, garretan, eta aurten ere Anboton emango ditu udaberri, uda eta udagoiena, naturaren berpiztetik azkeneko uztak batu arte. Neguaren hasieran berrien berriz etorriko da hona. Bien bitartean nik neuk jagoten diot egoitza eder hau. Aditu, erakutsi egingo dizut. Erdu barrura.

Ikusten duzunez, Supelegorreko kobazulo honen ahoa handia da, hegoaldera begira dago eta ezkutu-ezkutua da. Sartuz batera, gune zabal bat daukagu, luze besteko zabala. Aurreragoan argia ikusten da, goiko

sabaian berezko zulo bi daudelako, eta hortixik sartzen da eguzkiaren argia eta haize korronea.

Barrurago ere joan gaitezke baina arriskutsua da, zuziak ere amatatu egiten dira eta ez da ezer ikusten. Nik badakit barru-barruan zer dagoen inoiz edo behin narraz joan naizelako. Aintzira edo laku antzeko bat ere badago hor sakonetan. Ikaragarria da Mariren neguaroko egoitza hau. Negu partean hainbat artzain eta herritarrek egiten dio bisita Mariri. Abere eta txoriak ere jotzen dute hona negu gogorrari iheska.

Labur baino ez bada ere, kontatu eta erakutsi dizut behin behinekoa, eta orain utzi lepoan dakarzun morrala edo zakutoa eta beharrera.

Eutsi makila eta zoaz nire ganaduak zaintzera. Eguerdi aldera zantzo bat botako dizut eta etorri bazkal-tzen jakia prest egongo da eta. Haserrerik ez badago, mantenitalde ezeze, urtearen azkenean arkazte arra eta urruza pareta emango dizut etxerako.

Txomin gaztea joan zen agindua betetzera. Bidean haitz bitarteetako landetan hainbat gauza ikusi zituen. Pago inausiak, haritz landare landatuak, eta abar luze

baten ondoan, han haitz handi baten hegoaldeko mikrokliman mahats landatu edo mahasdui bat ere ikusi zuen.

Artaldera heldu zenean ikaratuta geratu zen hainbeste ardi eta ahari ikustean. Ahoa askatu eta txistu batzuk ere bota zituen artaldea harona mugitzeko eta ene!, artaldeko ardi batzuk ezagutu egin zuten Txominen txistua eta berehala hurbildu zitzaizkion praka barrenetara.

Txomin poztu egin zen alde batetik, baina goibeldu bestetik. Jentil gaiztoak ostutako ardiak aurkitu zituen, baina nola berreskuratu? Zenbat aldiz etorri zitzaion gogora ha esaera zaharra: «Ukondoa hurbil baina ezin musurik eman!»

Tira, horrela zebilen gure artzain gaztea egurdarte osoan eta halako batean jentilaren zantzua entzun zuen. Estentor greziarrak berak ere ez zuen botako hainbesteko zantzua.

Utzi ardiak zaintzeari eta zuzian joan zen gure Txomin jentilaren kobako sutondora.

Ordurako, jentilak jaki apur bat zeukan iminita lurrezko lapiko handi batean zahagi-ardoa aldamenean dela eta biak bietara jateko plantatu zirenean, badiotso jentilak:

—Gogora ezazu gure baldintza. Ez dut nahi ezelako haserrerik eta hemen neuk agintzen dudanez, har ezazu lapikokoa baina gaineko tapa kendu gabe!

—Nola egingo dut ba hori? —erantzun zion haserre Txomin goseberak—, ezin denik ezin da egin eta ez daukazu horretarako eskubiderik mandamas edo kankailo arraio horrek halako horrek!

—Ja, ja, ja, ikusten duzu? Zu haserretu egin zara eta berbakoak izan behar dugunez, bete egin behar dugu baldintza, beraz, narru zati bat kentuko dizut lepo-bizkarretik!

Esan eta egin, jentil gaiztoak bat ere ikara barik, hartu epai zorrozdun sukarrri landu bat eta, rast-rast! kendu egin zion narru zati bat Txomin gizagaixoari, haragi bizian eta odola dariola utziaz sorbalda ingurua.

Artzain gaztea aieneka zegoen sinestu ezinda. Jentila, ordea, barre zantzoka lapikoari tapa kendu eta lapikokoa jaten ezpainetatik adurra dariola. Gerotxoagora, badiotso berriro jentilak:

—Ardoz beteko zahagi hau ikusten duzu? Ba, edan ezazu nire mahasduiko ardo gozoa zahagiari estukinik soltatu barik!



—Lehengoaz gainera, hau ere bai? —erantzun zion odolak ur egiteko moduan Txominek—. Ez horixe! Niri neuri ez didazu berriro holakorik egingo, eta ni neu banoa hemendik paraje honetatik eta zaude bakarrik, mandazain astakirten hori halako hori!

Berbok esanda, alde egin zuen Txominek, orpoetan har barik egin ere badaezpada zein beste narru zati bat ebagi eskuetan sukarrri zorrotza dela zegoen jentilak.

Etxera heldu zenean eta gertatutakoa kontatu, Patxi bigarren anaiak esan zion barruko amorrua aguantatu ezinean:

—Neu joango nauk hire ordezt!

—Ez, Patxi, ez hadi joan —erantzun zion zaharrenak—, txarra zer duk ha jentila! Beste jentilen artean ere gaiztotzat zeukatek. Begira ezak nire lepoa haragia agirian, hirekin ere beste hainbeste egingo dik esana egiten ez badiok. Heuk atera kontuak! Gure ardiak eta beste askorenak ere berak zeuzkak, baina ez zegok hari kentze-korik. Ez adi joan, joaten bahaiz hireak egingo dik eta.

—Ez dik ardura! Banihoak!

Joan egin zen bigarren anaia ere baina haren jentilaren fetura eta trajura ikusiz batera, ahotik barbarik



askatu ere egin barik, eaurt egin eta etxera bueltatu zen, abantean gainera, kakadario eta hezurretarainoko bildur-sartuarekin!

Perutxu bakarrik geratzen zen, Perue eta Marie guraso zaharren beranduko seme txikia. Alaia, bizkorra, buruargia, etxekoia eta apur bat bildurbakoa zen Perutxu, eta bere anaiena ikusita gogait eginda zegoen jentil gaiztoaren mantzinkeriekin eta ia-ia berak ere sinesten ez zuela badiotse etxeko guztiei:

—Eta neu joaten banatzaio zer?

—Ezta, pentsatu ere! —erantzun zioten denak batera—, hi, irentsi egingo hau hak jentiltzar kankailo, kokorioak eta ez!, hi, ez! —erantzun zion Txomin anaia zaharrenak sorbaldatik eskua oboan botata—.

Perue aitak ere bai, baina batez ere Marie amak gogor ere gogor hartu zuen Perutxu esanez:

—Ez semetxo laztana, zu, ez. Ez zaitut galdu nahi. Biziko gara zelan edo halan eta ez ezazu egin holakorik belea beltzago ez da egingo eta.

—Ama, berorrek ez du nitaz arduratu behar —erantzun zion Perutxuk alimua emanez—, nik jakingo dut zer egin horrekin erraldoi horrekin, berori egon bedi lasai, laster ikusiko nau berorrek berriro etxean geure ardi eta guzti, gehiagorekin ez bada!

Etxeko guztiak ezetzean egon arren, Perutxuk, ekin eta ekin egiten zien eta, azkenean, borondatez kontra baina, bakearren, utzi egin zioten joaten kontuz eta zuhur ibilteko aginduz.

Hartu zuen Perutxuk Itxinarako bidea. Atxuloko begitik igaro eta egurdarte barruan heldu zen Supelegorreko jentilagana txistuka eta inon diren salto-brinkoak eginez oinberdinka.

Jentilak, olgetan dabilen mutikoren bat zelakotan, jaramon handirik ere ez zion egin, baina beragana zuzenean zetorrela ikustean badiotso harrokeriaz beterik:

—Mutiko, zer darabilzu hemendik neure parajetik hain alai eta bat ere bildurrik gabe?

—Zer darabildan? Ni Perutxu nauzu, aurreko mutil bien anaia txikia eta kridu beharrak egiteko asmoz niatortsu! Zer ba?

—Zu nigana kridu? Ja-ja-ja. Zaude isilik, ume mukitsu, indarge eta gauzaeztan hori!

—Ni gauzaeztana? Ez horixe! Nik asko dakit gero, e! Beraz, kontuz nirekin ez naiz kakadario geratuko zure aurrean eta.

—Zatoz eta ikusiko dugu ia norainokoa zaren. Ja-ja-ja, zure narruaren errukia! Zeure anaiengandik jakingo duzu, ezta? Hemen haserreak narru zatia kentzea dakar! Aditu duzu?

—Bai horixe! Baina berriro diotsut, kontuz nire zuhertasunaz inor ez lakoa naiz eta. Gero ez du balio damutzeak.

—Baina, zer da dakizun hori hain seguru egoteko?

—Zer dakidan? Hasi galdetzen.

—Hara, Perutxu —esan zion jentilak burlazar erantzunik gabe geratuko zelakotan—, zuk ezetz jakin nik zenbat urte ditudan?

—Jakingo ez dut ba? Urte bat gehiago urte bat gutxiago, erdiak eta beste hainbeste.

Jentilari ez zion bat ere graziaz egin hark erantzunik, baina guztiz egia ez bazen ere, gezurra ere ez zen eta badiotso:

—Orain zure txanda.

—Jentil buruhandi, ezetz jakin gaurko gizona eta inguruko animalia batzuen batazbesteko adina?

—Ba, ez, ez dakitsut zehatz esaten.

—Ba, nik neuk bai. Hara: gizonak hiru zaldialdi, zaldia hiru txakurraldi, txakurrak hiru hesialdi eta zurezko hesiak hiru urte! Zuk ez dakizu multiplikatzen, ezta? Ba nik neuk bai. Aditu: zurezko hesiak hiru urteko bizia badu, txakurrak bederatzikoa, zaldia hogeita zazpikoa eta gizonak laurogeita batekoa.

—Oño! Egia da —erantzun zion jentilak eskua okotzera eramanez—, bota beste itaun bat, hurrengoa baietz igarri!



Perutxuk, jentilaren artalde ikaragarriari begiraturaz, aitak irakatsitako igarkizun hau bota zion jentil kokoloari:

—Aikomen duzu beste hau. Han gure herriaren elbarrenean artzain bi zeuden euren artalde eta guzti bakoitza bere harresidun barruti-bedarra jaten. Halako batean batak badiotso besteari: «Hi, hik niri ardi bat ematen badidak, nik hire artaldea bikoiztu egingo nitek». Eta besteak erantzun: «Ba, heuk ematen badidak ardi bat artalde biak berdindu». Zenbat ardi ditu bakoitzak?

—Puf! —erantzun zion jentilak buruko ileak igurtziz—, ni numeroetan galdu egiten naiz eta ez dakitsut erantzuten. Dendik ere, zuk zeuk ba al dakizu erantzuna?

—Jakingo ez dut ba? —erantzun zion Perutxuk barre baten—. Aiko, artzain batak bost ardi zituen eta besteak zazpi. Bostekoak zazpikoari bat emanez gero, zortzi eta lau, hots, doblea; eta zazpikoak bostekoari bat emanez gero seina, biak berdin.

—Egia berriz! —erantzun zion harrituta jentilak—, baina nik, ordea, animalia guzti-guztiak ezagutzen ditut, zuk ezetz ezagutu nik neuk beste.

—Ezagutuko ez ditut ba! —barre zantzoka Perutxuk—, nik gainera, hortzetatik dakit zein animalia den.

—Hortzetatik?

—Bai, hortz, hagin eta albohaginetatik!

—Hegaztiak ere bai?

—Baita!

—Ja-ja-ja, jentilak —baina hegaztiek ez daukate ba eta hortzik!

—Hegaztiek ez, baina nik neuk bai euretariko ba-koitzaren haragia jatorduan —Perutxuk irribarrez—. Gehiago oraindik. Hor sutondo bazterrean, besteak beste, zeuk egineko gaztai ilun batzuk ikusten ditut. Hartu zuk dozena erdi eta nik neuk bat. Zeuk nahastu eta begiak tapatuta ere baietz igarri neureari!

—Ezetz!

Jentilak bere sei gaztaiak aukeratzen zituen bitartean, Perutxuk ere berea egin zuen baina supazter gaineko harri-hormatik ketea edo kedarrea hartu eta igurtzi-igurtzi egin zuen ha gaztaia alde bietatik.

Tranparik egon ez egiteko jentilak hartu lau atzondoko larru-hede bat eta oboan-oboan begi biak estali zizkion Perutxuri. Nahastu zazpi gaztaiok eta Perutxu euren ondora ekarri itsu-itsuka.

Belaunikatu egin zen Perutxu misterio kutsua emateko kontuari eta hasi zen gaztaiak banan-banan eskuetan hartzen. Gaztai bakoitza oratu ahala, Perutxuk hauxe esan eta egiten zuen: «Gaztaia behera, gaztaia gora, eutsi musua eta zatoz ahora».

Zazpiak pasatu zituenean, atzamarekin sasi-kontu batzuk egin ondoren badiotso Perutxuk:

—Hirugarren gaztaia izan da nik aukeratutakoa!

—Oño! Bai berriz! Baina txiripa bat izango zen eta berriro!

—Bai, horrela nahi baduzu, zenbat gura eta harexen beste bider!

Egin zuten froga bigarrenez ere eta Perutxuk igarri. Hirugarrenez ere bai eta berdin. Jentilak, kendu hedea begietatik eta non diotson:

—Inor ez bezalakoa zara, Perutxu, ez dakizu zenbat baino nahigo nukeen nola asmatzen duzun jakitea.

—Erraz, jentil artaburua, erraz. Nik nire gaztaiari ketea edo kedarrea igurtzi diot eta musua ematerakoan mihi puntaz miaztu, eta bereala barruntatu ketearen gazi-mingostasuna. Honezkero emendatuko zinen nor baino nor guztiekin ezta?

Jentil gaizto eta indartsua ikaratuta zegoen Perutxuren zuhurtasunaz eta berarekin ezin zuela ikusita kridu beharrak azaltzen hasi zitzaion esanez:

—Perutxu, utz diezaiogun txantxetari eta aikomen zure eginbeharra aurrerantzean: hor duzu Itxinako barrutian zehar nire artalde nagusia eta horixe zaindu behar didazu. Laguntzailea jarriko dizut, hor aurrean mantso-mantso ikusten duzun azeria.

—Azeria ardiak zaintzeko? —erantzun zion harrituta Perutxuk.

—Bai, zer ba? Nik mehatxupear ondo baino ere hobeto hezita daukadan azeri hau txakurrik onena baino hobe eta bizkorragoa da.

—Bizkorragoa? Zure azeri horri nik neuk ezeze barakarro batek ere gehiago egingo lioke —erantzun zion Perutxuk ezusteko barregarri bat bururatuz.

—Ekar ezazu barakarro hori eta egin egingo dugu lasterketa. Hemendixik Supelegorretik Gorbeiako puntara izango da norgehiagoka.

Perutxuk aurkitu eta hartu zuen bare hazien artean barakarrorik itxurazkoena eta erakutsi egin zion jentilari.

Jentilak lepozizkarrean ebagitxo bat egin zion alborik hara hari barakarroari tranparik egon ez egiteko, eta badiotso Perutxuri:

—Beno, ni Gorbeiaiko puntara joango natzaizu salto batean eta zuk, Perutxu, Supelegorreko atakatik irteera eman nire azeri eta zure barakarroari, eta zuk zeuk ere egin lasterketa bidebatez ia nire azeria besteko bizkorra zaren ikusteko.

Esan eta egin. Jentila Gorbeiaiko tontor tontorrean zegoela Perutxuk, zuhurtasun guztiz, azeriaren buztan ganean jarri zuen kontuz-kontuz beren beregi aukeratutako barakarro mukitsu eranskorra zein azeria konturatu. Jarraian eupada bat bota jentilari eta bat, bi, eta hiru! kontatu zituenean, han zihoazen azeria abiadura bizian eta aldamenen Perutxu begi batarekin aurrera eta bestearekin azeriaren buztaneko barakarroari begira. Joan eta joan, heldu ziren Gorbeia gain gainera. Lehenengo Perutxu eta gero azeria. Jentila harrituta geratu zen alde batetik Perutxuren bizkortazunaz, baina bestetik barakarroarena ikusi nahi zuen. Azeriak helmuga gainditu zuenean eaurt! edo jiratu ondoren Supelegorrerantz

begira jarri zen jentilak burua laztantzen zion bitartean eta badiotso barakarroari:

—E! Barakarro borro, nondik hator? Ni neu hemen niagok, Gorbeiaiko gailurrean, noiz helduko haiz ba nagi-ipurdi hori halako hori? Ja-ja-ja.

—Ni heldu? —erantzun zion atzerik hara barakarroak—, ni hemen niagok aspalditik, ez nauk ikusi ala itsututa hago?

Jentilak ezin zuen sinestu. Hartu zuen ha barakarroa eta benetan ere lepo-bizkarrean ebagiduna zen. Zelako erridikuloa! Barakarroak azeriari zertan eta arineketan irabazi, holakorik!

Lotsari horren aurrean, jentilak jo ostikada bat uzkian azeriari eta Gorbeiaiko landa zeharretatik behera bota zuen kikiribueltaka inutil gedarrez.

Perutxu eta jentila isil-isilik jaitsi ziren, bata barrutik barreka eta bestea amorruez beterik nor arrimatu zitzaion pentsatzen. Arrabako landara iritsi zirenean badiotso jentilak:

—Perutxu, nire azeriari irabazi egin diozu, baina niri ezetz irabazi arineketan. Zeharka dezagun hau Arrabako landa eder hau zeinek gehiagoka.

Egin zuten lasterketa eta jentil hankandiari irabaztekorik ez zegoen, baina Perutxu ez zen bat ere ikaratu hori goiti beheiti.

Supelegorrera heldu zirenean jentilak bere legeak argitu edo eta gogoratu zizkion ahotik bitsa dariola, eta jatorduan bengantza egingo ziolakoan ardietara bidali zuen Perutxu zirautsala:

—Zoaz nire begien bistatik eta zaindu ondo nire artaldea. Jatorduan eupada edo zantzo bat botako dizut eta etorri, gero ikusiko duzu ni nor naizen, hemen sutondoan neurtuko dizut nik neuk zuri zure zuhurtasuna.

Perutxuk hartu hurritzezko makila eta bildurra eta poza borrokan zituela joan zen jentilaren artalde nagusia zaintzen.

Eguerdiko jatordua heldu zenean jentilak ikaragarriko zantzoa bota zion, eta Perutxuk badaezpada haitz-harri punta zorrotz bat gorde poltsikoan eta zoli-zoli hurreratu zen Supelegorreko supazterrera.


Hantxe zegoen jentil gaiztoa, serio eta Perutxu haserretzeko intzigu gorrian lepo bizkarretik narru zati bat kendu nahian. Honela askatu zuen ahoa jentilak:

—Perutxu, orain-
goan neurtuko zaitut ba!
Aikor lurrezko lapikoa eta
jan ezazu barrukoa gaineko
tapa kendu gabe! Je-je-je!

Perutxuk hartu bat ere
ikara barik supazterreko
burduntzia, jo lurrezko lapikoa
erdi ingurutik eta zulatu egin
zuen eta barrukoa jan, gozo gai-
nera.

—Zenteila madarikatua!
—esan zion jentilak Perutxuri—,
baina zer egin didazun badakizu? Zer
egingo dut nik orain lapiko barik? Non
egosiko dut aurrerantzean lapikokoa?
Birrindu egingo zintuzket!

—Hortxe kontuz gero, e! —erantzun
zion Perutxuk betuxokeria barik—, legeak
lege badira, zu haserretu egin zara, beraz, larru
zati bat kendu behar dizut bizkarretik. Erantzi



idinarru edo dena delako hori soinetik eta biluztu gerrizgora.

Jentilak berbakoa izateagatik edo, esana egin zuen eta Perutxuk oratu bizkarreko ile luzeetatik eta, rast! Narru gogorra ezin eta ile txorta bat atera zion jentilari aieneka utziaz mehatzunean atzamurruka.

Haserrealdia joan zitzaionean jentilak berrien berriz harrapatu nahi zuen Perutxu eta oraingoan badiotso:

—Perutxu, lapikokoarekin ardo ona edatea ona dela eta, har ezazu hor okeluan daukadan zahagi ardoa eta edan ezazu apur bat estukinaren moropila askatu gabe. (Oraintxe bai, oraingoan ezingo zara haserretu barik egon eta, je-je-je, zure lepo bizkarraren errukia! Haragi bizian utziko dizut gerriz gora guztia, ikusiko duzu!)

Perutxu zutundu egin zen eta zahagi ardoa bila doala sutondoko okelura, sartu eskua poltsikoan, hartu haitz harri zorrotza eta zast! zahagiari zuloa egin eta dranga-dranga tragu eder bat bota zuen azkenean ahopats eta guzti.

Ene-ene-ene!, zer nolako heserrea erakutsi zuen jentilak, bildurgarria benetan. Perutxu ikaratu egin zen

eta lehengoan bezala narrua kentzen barik alde egitera joan zen, baina jentilak eskutik heldu eta kieto parao esanez badiotso beste haserre bide bat bilatu nahian:

—Ez zaitut ikusi gura nire ingurumarian eta zoaz egurretan gaueko afarirako. Ez ekarri edozein egur mota. Enbor mehe, adar zabal eta ezkur gabeko zuhaitz egurra izan dadila eta aurkitzen ez baduzu, zureak egin du!

Buruz behera eta pentsakor joan zen Perutxu egurrok bila eta ibili eta ibili enbor meheko eta adar zabaleko mahatsondo bat aurkitu zuen mahats-mordaz beterik. Atera sustraietatik, jan mahats guradana eta han doa Supelegorrerantz mahatsondo hori narraz daramala.

Bere mahasduiko mahatsondorik onena malogratu zuela ikusi zuenean jentilak, mehatxatu egin zuen Perutxu eta gogor egin ere gainera esanez:

—Zer egin didazu Perutxu? Ba al dakizu zenbat kostatzen den honelako mahatsondo emankor bat lortzea? Zoaz berriro eta ekar itzazu beste ezertarako balio ez duten landare txikiagoak, tapa-tapa egin haronakoa gautu egin behar du eta.

Perutxuk birritan pentsatu gabe, jentilaren sabi edo mintegira jo zuen eta handixik hartu haritz, pago, arte,

lizar eta gorozti landareak, eta badoa txistuka afarirako sua egiten.

Jentilak Perutxuk egineko deskalabrua ikusi zue-
nean, oratu Perutxu kokotetik eta odolak ur egiteko
moduan esan zion:

—Hara, Perutxu, ez didazu gehiago adarrik joko
ez eta burlazar ekingo. Egiriñaoko landetara bidaliko
zaitut eta hantxe egongo zara nire ardi eta gainetiko
ganadu guztiak jagoten. Ez atomatu alde egiten handik,

e! Zu bizkorra zara baina ni txakur
zaharra. Eratzun bat daukat hemen
gordeta. Hitz egiten dakien
urregorrizko eratzun berezi
bat da eta horixe sartuko
dizut orkoloan.



Eraztunak «hemen nago, hemen nago, hemen nago» esaten daki eta beti jakingo dut nondik zaren ikusi ez arren ere. Oraingoan ez daukazu eskapatzerik.

Pentsatu eta egin. Jentilak hartu urregorritzko eraztuna, sartu Perutxuri hatz-orkolotik, hortzekin estutu atera ez egiteko moduan eta Supelegorretik kanpora bota zuen Perutxu mutikoa mehatxu gedarrez:

—Zoaz Egiriñaora. Hantxe daukazu harrizko txabola zahar bat eta barruan era guztietako tresna eta ontziak. Hantxe biziko zara eta pastore beharraz gain gaztaigintzari ere ekingo diozu. Noizean behinean joango natzaizu gaztaitan eta ia nire ganadu eli, artalde, urdetalde eta abarrak ondo zainduta dauden ikusten.

Joan zen Egiriñaora Perutxu eta mendia hartzen edo lekura egokitzen hasi zen. Egiriñaora paraje zoragarria zen. Haitzuzeko iturri ederra, pagadui handiak, landa zabalak, haitz politak eta txabola leku ezkutuan, eguzkibegian.

Lehenengo eta behin, harrizko txabola zaharra atontzen hasi zen Perutxu. Arbelezko teilatua konpondu itoginik ez eukiteko, barruak garbitu, zurezko atea berriztatu barruko txaramel eta guzti, eta gainetiko behar

guztiak egin zituen. Gero kortikaz beteriko tresnak hartu eta iturrian garbikuzia egin zuen. Ura hotz ere hotz zegoen eta ontzi-garbitze horretan kipututa geratu ziztaizkion atzamarrak Perutxuri. Eta ene!, atzamarrok hain zuri eta bigun ipintzean orkoloko eraztuna atera zezakeela konturatu zen, baina ez zuen atera badaezpada, nola atera jakiteaz konformatu zen, aterata ere hitz egiten jarraituko zuelako eraztun berezi horrek.

Egunak joan egunak etorri, traza hartu zuen Perutxuk Egiriñao aldean eta abeltzaintzan maixu egin bazen, gaztaigintzan maixuago. Behar bitarteetan batera bestera zebilen Gorbeiapetik, bateko txori topetan, besteko harribotaten, txistuginen, eupadaka, zantzoka eta abarretan.

Udaren hasierako egun kanikula batean, jentilaren bisita hartu zuen Perutxuk eta hango hangotasunak ikusi ondoren badiotso ikaratuta jentilak:

—Oño! Txarto ere ez zara bizi. Gosakilik eta errukarri aurkituko zintudalakotan egon naiz, baina ikusten dudanez ni neu baino hobeto bizi zara. Ardi, urde, zaldi, behi eta gaisetikoak ere itxura onean ikusten ditut, goazen txabolara gaztaiak probatu eta neureekin konparatu behar ditut eta.

—Nahi duzunean —erantzun zion Perutxuk barruko pozari eutsi ezinik—, ez dakizu zenbat baino gurago nukeen zuk nire gaztaiak dastatzea.

Biak bietara joan ziren txabolara eta hango gaztaialdia ikusirik ikaratuta esan zion jentilak:

—Ekar iezaizkidazu gaztai egin berri bat, erdi egineko beste bat eta azkenik ondu-ketu bat.

—Eutsiz, ardorik ez daukat ze!

—Ardoa nik beti daramat aldean, zahagi txiki honetan. Gaztaia nahi dut jakin zelakoa den, batez ere barrutik, begiduna zein begibakoa.

Jentilak, hartu hiru gaztaiok eta bata bestearen atzean jan zituen, irentsi hobeto esanda eta badio:

—Arraioa! Non ikasi duzu zuk hain gaztai gozoak egiten?

—Neure etxean, non ba? Baina horretarako esneak ere onak izan behar du. Hauek gaztai hauek zuk guri ostutako ardien esneaz eginda daude. Zu, lapurra zara galanta!

—Ni ez zirikatu gero e! Bestela badakizu!

—Badakizu zer? Ahaztu egin duzu ala? Lehen-goarekin nahiko izan ez baduzu ni prest naukazu demostrazio berriak eta ikaragarriagoak egiteko, e!

—Zer egingo zenuke ba Perutxu kakanarru horrek?

—Ba, zulako enbeleko bati, esate baterako, harria nork bota urrunago.

—Hori, egitea baino ez dago.

Jentila orduan, harri bila hasi zen eta itxuraz Perutxu ere bai. Baina Perutxuk, beti bezala zuhurtasuna erabili zuen. Joan iturri ondoko haitzera eta hango zulo baten begiztatuta zeukan txori-habiatik hartu harri koloreko hontza amea eta kolkoan sartu zuen, eskuetan harria, jakina, jentilari erakusteko.

Lehenengo, beti bezala, jentilari tokatu zitzaion eta bota zuen bere harria, urrun bota ere, Egiriñaotik Lekandako haitza jo arte.

Perutxuk harria bota baino lehen abiada hartzeko edo, atzera-aurrera batzuk egin zituen eta apur bat makurtu zenean, eskuetako harria zorura bota, kolkotik hontza hartu eta zazt!, airean bota zuen. Lekandako haitzaren puntatik aurrera eta aurrera egiten zuela ikusirik, badiotso Perutxuk:

—Ikusten duzu? Nire harria gutxienez Supelego-
rreraino heldu da, harago ez bada.

—Egia da berriz! —erantzun zion jentilak—, baina
ez nago konforme eta beste froga bat egin behar dugu.
Oraingoan neuk aukeratuko dut.

—Egitea baino ez daukazu —Perutxuk.

—Ba, zeinek apurtu harri bat zati gehiagotan.
Konforme?

—Bale! Baina gautuz doa eta bihar egiten badugu
hobe —Perutxuk ilargiari begiratzuz.

Gau haretan, jentila Perutxuren txabolan geratu
zen eta gauerdian, lo-arrantzaka zegoen bitartean, Peru-
txuk, hartu ardi-esnedun zinezko errada, legarra bota
eta gaztai zuria, guri-guria, gaztanbera egin zuen. Gero
urten txabolaren albatetik, gaztai guri hori lur buztin
apur batez igurtzi eta han utzi zuen txabolaria deusola
beste harri batzuren artean jentila konturatu ez egiteko
moduan.

Hurrengo goizean, jentila tertzioz jagi zen eta
Perutxu geroago batean, lo-itzarria kendu ezinik eta
nagiak ateraten ikusi zuenean badiotso:



—Zer, Perutxu, prest zaude apostua egin eta galtzeko?

—Hori gero ikusiko dugu! Atzokoa ahaztu egin duzu ala?

Egurdarte erdi ingurumarian, ganaduak gobernatu zituztenean, hara han non plantetan zaizkigun biak harria apurtzeko.

Jentilak, han inguruan zegoen harririk handiena hartu, imini haitz baten gainean, jo ikubilaz eta laurkindu egin zuen, lau zatiak txirran zirela mendian behera.

Perutxu, tenplatu zegoen laurkindutako zatiori adi eta barrurikako estukura agertu barik badiotso:

—Lau zati? Hori zer da ba? Aitu nire harria, nire burdin-harri gogorra!

Perutxu astiro-astiro zihoan txabola bazterrerantz besoak erremangatuz. Hartu zuen goizaldean egindako harri-itxurako gaztaia eta astun-plantak eginez jentilaren ondora itzuli zen eta esan:

—Hau nire harri hau zurea baino gogorragoa da, burdin-harriak burdina dauka nahastuta eta badaezpada



joan zaitez harago zein harri birrinek begiren bat sastaparras bete eta lausotu.

Malezia bako jentil hori atzeratu zenean, Perutxuk joten du sasi-harri hori ikubilaz eta birrin-birrin ez zuen egin ba!

Jentila hurreratu egin zitzaion Perutxuri bere fetxoria ikusteko eta egia zela ikustean samako intxaurre gora eta behera egiten zion sinestu ezinik.

Perutxuk, ikusirik jentilaren ikara, apurtxo bat harroturik eta jentila arean bildurtu nahian badiotso:

—Orain zer, asaskatu zara posturak egiten ala ez?

—Ba egia esateko, ez!—erantzun zion jentilak—. Eta beste nor baino nor bat gehiago egiten badugu, zer?

—Zein apostu nahi duzu ba oraingoan? —itaundu zion Perutxuk.

—Egin dugunaren antzekoa —erantzun zion jentilak—, baina oraingo honetan harria Lekandako haiztaren kontra jo eta hauts egitea izango da, ikusiko duzu, zuk ezetz nik besteko harriaz nik bestean harria haustu.

—Bale —erantzun zion Perutxuk—, bihar eguzkiak Lekandako haitza joten duenean egingo dugu zeinek gehiagoka hori.


Perutxu, jentila lo zegoela, txabola osteko haitzera joan zen eta arrano batek egindako arrautza pare hartu zuen. Kontuz-kontuz lur buztin apur bat egin gainetik eta harri itxura eman zion, eta leku jakinean gorde.

Etorri zen hurrengo eguna eta goizeko loitzarria kentzeko nagiak atera, eta han plantatu ziren apostu berri hori egiteko.

Jentilak hartu zuen bere harria, abiada hartu, jaurti eta hauts egin zuen egin ere bere kere-harria Lekandako haitzaren kontra.

Perutxuk ere hartu zuen berea, jaurti eta airean doala erdibitu, eta gero hauts egin ziren zati biak haitza jotzean. Hauts eta gainetikoak ikusita, badiotso ikaratuta geratu zen jentilari:

—Ikusi duzu, ikusi. Hasteko, nire harria erdibitu egin du abiaduraren eraginezko haizeak. Gero haitzera-



tzean, hautsa ezeze elurra eta urregorria ere atera dizkiot erdibituta heldu den nire harriari. Hantxe dauzkazu, joan eta egiaztatu.

Jentila berbartu eta guzti geratu zen minfirua mugitu ezinda eta hortz artetik hitz eginaz badiotso Perutxuri:

—Beno, ikusi duguna ikusi dugula, beste arlo batera joko dugu eta hantxe jarraituko dugu apostatzen.

—Zertan? —irribarreka Perutxuk.

—Ba, haritzak ipurdi-ipurditik ateratzen, horiek inoiz inausi gabeko haritz garrastak errotik ateratzen. Horixe izango da apostua, eta ez dut uste horretantxe irabaziko didazunik, jentilen artean ere ez dit inortxok ere irabazi eta.

Perutxurentzat beste buruhauste bat, eta nolakoa gainera! Egunaren ordu guztiak eman zituen zeozer asmatu guran. Goiza joan zitzaion, arrastia ere bai eta gauean afaldu ere ez zuen egin patxadaz.

Hurrengo goizean, akordatzakoan, estukin luze bat aurkitu zuen Perutxuk han txabolako erresumako akuilu batetik dindilizka. Hartu egin zuen artilezko estukin hori, batu, sartu lepoko morralean eta badiotso jentilari:

—Zer, bazatoz ala horra, horko beheko harizduira?

—Bai, atoan joan ere! Ez dakizu zenbat baino nahiago dudan bertara heltzea!

Harizduirantzako bidean, Perutxuk ez zion agertzen indargetasunik jentilari. Honek ere indar handiko postura zuenez, nor den demostratu nahi zion Perutxuri, eta biak zihoazen isil-isilik.

Arrabako landapeko harizduian sartu zirenean, jentilak, irabazi nahiaren irabazi nahiaz hartu esku biak eta belaun barru bien bitartean haritzik handiena, gorantz egin denodu guztiaz, eta razt!, porrua balitz bezala atera zuen zuztar-zuztarretik.

Perutxuk hori ikusikeran, zer? eta aurrezdik ondo pentsatuta zeukana egin zuen: harizduiko haritz bakoitzera igo bat ere artegatu gabe eta puntarik punta, haritzak lotzen hasi zen artilezko estukinaz jentilaren harridurarako:

—Zertan zabilta mutil katamixarra lez arbolarik arbola? —esan zion jentilak ikaraturik—. Zoratu egin zara ala nigandik eskapa zoaz? Zertan daragoiozun baino ez da!

—Zertan ibiliko naiz ba, zure antzean banan-banan barik, hemengo haritzak denak batera aterateko estukinez amarretan!

—Ez, mutil! Ez iezadazu egin holakorik! Haritz guztiak ateraz gero, zer ezkur edo zer arraio jango du ba nire urde eliak aurten? Urdeak guztiak gosez hiltea nahi duzu ala? Bajatu zaitez agudo eta goazen txabolarantz, zeuk irabazi didazu, zulakorik ez dut sekula ikusi! Batek zer ikusi behar duen baino ez da hemen mundu honetan! Ikusteko ere holakorik!

Gertatuak gertatuta, Perutxu eta jentila txabolarantz abiatu ziren. Biak isilik. Txabola aurrera iritsi zirenean, zoruan zeuden pago-enbor banatan ezarri ziren eta badiotso jentilak:

—Aizu Perutxu, azken froga bat egin arte ez naukazu konforme, eta bihar beste neurketa bati ekin behar diogu.

—Zeini? Zeuk esan eta kito!

—Bihar pago-enbor bi hauek urrunago nork bota egin behar dugu, hantxe neurtuko zaitut, ez zara gauza izango enborra lurretik jasotzeko ere eta!

—Noiz gura! —erantzun zion Perutxuk esku bietara txua bota eta igurtziz!

Igurtzi egin zituen Perutxuk eskuak baina hurrengo norgehiagoka horretarako zeozer asmatu beharrean zegoen.

Pentsatu eta egin. Arrasti guztia eman zuen burua hausten oraingo trantze honi aurre egiteko.

Ez zitzaion ezer bururatzen. Gauiluntzean, afari iski bat egiten zeudela biak bietara, non esaten dion Perutxuk jentilari iterantzun gisa:

—Zu, zuk zer familia arteko daukazun jakin daiteke?

—Nik neuk? Esan nizun ba, hemen Supelegorren inor ere ez, neu bakarrik. Han, Nafarroa aldeko Aralar mendian asko eta inportanteak, Olentzero eta gainontzekoak, zer ba?

—Ez, ezergatik ere ez, jakitearren!

Berbaldi bat egin orduan, lastamarragazko ohera sartu ziren. Jentila, etzanaz batera lokartu zen, baina Perutxuk ezin zuen lorik egin bildurrak jotako izerdi-larriaz.

Halakoren baten, Aralar eta hango jentil zaharrak etorri zitzazkion burura. Ez zeukan beste irtenbiderik jentila bildurtzea baino ze jakin bazekien ezingo zuela pago enborra lurretik jaso, eta gutxiago jentilak bestean urrun bota.



PERUTXU ETA JENTILA

Gorbeia barrenetako oilarren kukurrukuarekin batera jagi ziren biak, eta hasi bakoitza bere enborra begiztatu eta aukeratzen.

Beti bezala, jentila aurreratu zen, jaso zelaitik bere pago-enborra, abiada hartu eta airean bota zuen Anboto gainea igaro eta Oiz mendiraino.

Perutxu ere, bere pago-enborraren ondora hurbildu zen, serio egin ere. Igo bere pago-enbor gainera, zutun-zutunik plantatu, ekialderantz begiratu, esku bata eguzkirantz jaso eta bestea lurrerantz dela, aikomen zantzo-bertsoka bota zuena, nondik ahal indarrak aterata:

Eguzki argia, lur emankorra
Gorbeiatik doa pago-enborra
laster joko du Aralar tontorra
jentilentzat hondamendi zigorra.



Jentilak entzun bazituen ba ze zantzo-bertsoko hitzok, oratu Perutxuri esku bietatik, belaunikatu eta makur-makur eginda esan zion:

—Ez, mesedez! Ez ezazu bota egurtzar hori Aralar mendi tontorrera! Hantxe daukat ia nire senitarte guztia eta botaten baduzu bota, hil egingo dizkidazu geureak! Faborez, zaude geldi, zeuk irabazi didazu oraingoan ere!

Jentila burumakur, lotsatuta eta pentsakor geratu zen Perutxuren perutxukeriekin, eta Supelegorrerako bidea hartu zuen haserre baino haserreago. Joanean-joanean esaten zion bere buruari: «Hau Perutxu hau nor zenteila da? Harako batean Martintxuk ere beste hainbeste egin zuen Aralarreko jentilekin. Lehenengo garia lortu oinetakoetan, gero errota asmatu eta errotarren ardatzean jarri behar zen haltzaren berri atera. Handik gerora burdina lantzen jentilengandik ikasi eta, azkenik, trontza egiteko gure jentil jakintsuak esan behar gaztaina-orria sorosteko. Eta orain Perutxu honek ni ezerezean utzi eta apur bategatik Aralar eta bertako guztiak hondatu. Baina, ez! Ez dit burutik behera kakarik egingo! Ez du nigandik alde egingo, orkoloan daukan eraztunak salatuko du nondik dabilen baist, arineketan ez dago niri irabaztekorik eta!».


Perutxu bere aldetik lasaitu egin zen, baina bildur-sartua ez zitzaion bere gorputzetik kentzen. Pentsatu eta

pentsatu zebilen nola ospa egin, baina ha eraztunarekin zer egin, eta orkolotik aterata era nora joan?

Egunak joan gauak etorri, negu itxura hartu zuen urtaroak. Itxura bakarrik ez, halako iluntze batean Mari Anbotokoa ikusi zuen Perutxuk garretan pasatzen Anbototik Itxinako Supelegorrera. Horixe zen neguaren seinalerik esanguratsuen. Ikusgarria eta ikaragarria izan zen Mariren sugar-hotsa. Eskerrak jentilak kontu hori esanda utzi ziona lehenengo egunean, bestela ikara handiagoa jasango zuen seguruenez.

Dendik ere, gurasoei eta entzunda, Perutxuk bazekien Mari jainkosa ongilea zela eta herritarak kontsulta egi-tera joaten zitzaizkiola.

Egun batean, sorots egin eta jentila zertan hartan zebilela, Perutxuk bisita egin zion Mari jainkosari. Supele-



gorreko atakan zegoen ileak orrazten egunsentiko eguzkiarekin batera eta badiotso:

—Mari, estu eta larri nabil. Eginak eginda ere ezin diot alde egin jentilari eraztunak salatzen nauelako. Zer egin dezaket? Nire etxekoek errukarri bizi dira eta behar naute. Lagun egingo didazu?

—Hara Perutxu, zu zuhurra zara eta zuhurtasuna erabil ezazu. Dena ez, baina laguntza apur bat emango dizut, gainetikoa zuk zeuk asmatu. Begira, nola edo hala, zure eraztuna oinezkoak barik hegaztiren batek eraman behar du urrunera. Zuhur bazaude, paseko txoriak barruntatuko dituzu leku hotzetatik epeletara joaten. Hortxe duzu irtenbidea. Burua kantzatu eta asmatu. Badakit egingo duzuna. Jentilak sumatu du eraztunaren berbarotsa eta badator. Zoaz, baina hortik barruko haitz bitarteetariko batetik zein jentilarekin berberarekin topez tope egin.

Perutxuri zer pentsatu eman zion Marik, baina pozik bueltatu zen bere txabolara. Gogait eginda zegoen beti «hemen nago, hemen nago, hemen nago» entzuten.

Lainabeheradun egun baten txori zarata bereziak barruntatzen zituen Perutxuk bere txabola inguruan. Adi-adi egon eta gero, itsas-antzarrak zirela konturatu zen,

iparraldetik ekialderako pase-bidean lainopean galduta zebiltzan itsas-antzarrak. Marik esandakoa bete zitzaion. Eta Ciceronek esaten zuen bezala bizitzea pentsatzea denez, zer? eta hauxe etorri zitzaion burura Perutxuri:

—Eureka! Eureka! Eureka! Badakit zer egin jentilari hanka egiteko! Lehenengo, nire atzamar orkoloa beratu-beratu egingo dut haitz-urezko iturrian eta orkoloa kipututa sentitzen dudanean, eraztuna atera egingo dut gantz apur batekin igurtzita. Gero, esne hondakinekin molde gabeko gaztai txikiak egingo ditut eta gaztaitxo horietako baten barruan jentilaren eraztun hau sartu. Jarraian txabolaren oboan-oboan sakabanatuko ditut ia itsas-antzarren batek gose-gosean jan eta hortik zehar eramaten didan eraztun berbati gogaikarri hau Mari jainkosak esan zidan bezala.

Pentsatua egin zuen Perutxuk. Gau iluntzean egin zituen behar guztiok eta lo joan zen, ez zuen askorik egin baina.

Hurrengo goizean, egun eguzkitsua argitu zen, eta barausteko asti barik joan zen Perutxu bezperako gaztaiak ikustera, eta ene!, denak janda. Nortzuk? Eta itsas-antzarrak. Eraztunetik jakin zuen. Itsas-antzarrek, janak

janda, eguzkiarekin batera jarraitu zuten euren hegaldia eta hara han non entzuten zen eurentariko bategandik eraztun misteriotsuaren berbeta oraindino misteriotsuagoa haizeetan gora: «hemen nago, hemen nago, hemen nago».

Perutxuk bazekien zer zetorkion zuhur ibili ezean eta pago baten puntako sai-habia batetara igo eta zain geratu zen handik dena ikusteko.

Supelegorreko kobazuloan alauriak entzun ziren. Baina nolako alauri eta garrasiak! Begira norainokoak izango ziren Mari naturaren jainkosa berbera ere ikaratzeko. Horretara esan zion Marik jentilari:

—Zer arraio gertatzen zaik hain haserre egoteko?

—Zer? Ez dun entzuten nik Perutxuri orkoloan jarritako eraztunaren ahotsa?

—Bai, eta zer? —erantzun zion Marik Perutxurena bazekielako.

—Egiriñao baino haragoan entzuten dinat ahots hori eta Perutxuk ihes egin din eraztun eta guzti. Joan egin behar dinat zuzian atzerik hara harrapatzeko.

—Joan hadi mantzin hori halako hori! Kostatuko zaik Perutxu harrapatzea. Agur kokorio, adio betiko!



PERUTXU ETA JENTILA


Jentila itsu-itsuan joan zen Perutxuren atzetik. Lehenengo Egiriñaoko txabolara. Baina han Perutxurik ez. Gorbeiako puntara gero, eta han ere ez. Eraztunaren «hemen nago» geroago eta urrunago eta gorago entzuten zuen, txori banda baten artean, eta badio jentil erotuak berekautan: «Nola? Perutxu hegaz? Itsas-antzar artean? Ba, munduaren azkenera bazoaz ere, harrapatuko zaitut mutiko menperaezin hori!».

Jentila joan eta joan egin zen itsas-antzarron atzetik baina ez zuen sekula eraztuna berreskuratu. Ekialdeko parajeren baten galduko zen. Tartaloren kobazuloan beharbada, nork jakin?

Perutxu libre geratu zen. Eguberri egunean, hartu jentilaren abere guztiak eta bere etxeko atak jo zituen.

Harrezkero poza eta bakea nagusitu ziren Perue eta Marieren etxean eta Euskal Herri osoan Perutxuren zuhurtasunari eskerrak.





HIZTEGIA

abantean: arin, zuzian.

agudo: arin-arin, bizkor, atoan.

ahoa askatu: hitz egiten hasi, berbaz hasi.

ahopatsa: korrokada, eruktoa.

aiko: hona hemen.

aikomen: hona hemen (singularra).

aikomenzan: hona hemen (plurala).

aikor: hara hor.

aitaxe: aitaginarreba.

aintzira: lakua.

akordatzako: ustekabeko.

akordatzakoan: akordu barik, uste ez dela, ustekabean.

akuilua: burdinazko gan eta guztizko makila ganaduekin
ibiltzeko, idi-behiekin etab.

alauria: ahots-zarata, garrasi, oihu handi eta luzea.

albatea: alboko atea.



alimua: adorea.

amatatu: itzali.

amea: ama, baina animaliena.

antepetxua: bentana edo balkoietako salientea.

arean: apur bat, pixka bat, zertxobait.

arkaztea: ardi gaztea, urte bat edo bikoia.

arrasti: arratsalde.

artilea: ardilana.

asaskatu: lasaitu, desahogatu.

astakirtena: kirtenkeriak egiten dituen, brutoa.

ataka: ate-ahoa.

atomatu: atrebitu, ausartu.

atundu: konpondu, antolatu, apaindu.

atxantatu: akobardatu, atzean geratu, beldurtu.

atzamurrua: azkura handia, arraskatzeko gogo handia.

atzenengo: azkenengo.

atzondoa: atzamarra. Neurri bezala ere erabiltzen da:

atzondo bat hazi.

aztoratu: asaldatu, urduritu.

azuria: axuria, bildotsa, artxoa.

baist: arabera, dena delakoa.

barakarroa: barea, bare handia (moluskua).

barausia: gosari txikia, oherik harakoa.

barauskarria: baraua hausteko janari-edariak.

barea: molusku gasteropodo lurterra, barakarroa.

barre baten: barreka eta barreka geratu gabe.

barruntatu: entzun, asmatu, sumatu.

barrutia: hesidun bedar-soloa, hesi gabea ere bai.

behinola: behin batean.

belea beltzago ez egin (esaera): gauzak txarrago ezin joan.

beratu: bigundu, erremojatu, kiputu.

berbalotsa: berbaroa, jendea mar-mar hizketan.

berbartua / berbaltua: tartamutua.

beren beregi: espreski, propio, hartarakoxe, hartantxe.

betuxoa: eskaparia. Begiak bajatuta begiratzen duena
errezeloz beterik.

bildurkilik: berdurkilik, bildurak hil eginik, bildur handiagaz.

bildursartua: beldursartua, lehenagotiko beldur kendu ezina.

biluzik: larrua agirian, ezerlako soinekorik gabe.

borroa: mekoa, indarga, txikia.

burlazar: adarra joten, tentazar.

burua hausu: burua kantsatu, asko pentsatu, lorra eman buruari.

buruko lorra: buruhaustea.

dariola: jausten, erortzen.

daragoio: eragoten dio, ekiten dio, jarduten dio.

daukotsat: euki+nori. (Entzunda daukotsat = entzuna diot)

dendik ere: dena den, dena delakoa.

denodua: indarra, kemena, ugaritasuna.

denborak agertuko du elurra mendian (esaera): egia jakingo dela orain ez bada, geroagoan.

deutsala: erantsita, ondoan.



durdidu: zorabiatu, mareatu, aturdidu.

eaurt egin: buelta eman, haranzkotik honantz.

ebatzi: erabaki.

egineko: egindako.

egurdartea: eguerdi aurrea, goiz osoa.

eguzkibegia: eguzkiak joten duen lekua.

egurinen: sua egiteko egurra prestatzen.

elbarren: herri barren, herriaren beheko partea.

emendatu: bete, asetu.

enbelekoa: aurretik kendu ezineko zazpi-sutea, (trabatik
kendu ezina, «tabarrosoa»)

eragon: ekin, jardun.

erdu: zatoz.

erduzie: erdu (plurala).

errada: kantina, baldea, ur-ontzia.

erresuma: hormaren gain gaineko teilatu-hegalpea.

estentoreoa: handia, ikaragarria. (Estentor grekoaren abo-
tsa berrogeita hamar gizonena batera baino
handiagoa omen zen.)

estukina: zeozer estuteko bedar, gari, mimen, kordel,
erramal, soka etab.

eupada: deia, dei egitea eup! esanaz.

eureka (grekozko esaera): aurkitu dut, badaukat.

eutsi: har ezazu.

eutso: har ezak (hitanoz, bizkaieraz).

ezeukia: pobrezia.

fetura: ganora; itxura, patxada.

ganorabakoa: fundamentu gabea, fetura gutxikoa.

gantz: gantzagia, koipe-haragia.

garbikuzia: garbiketa.

garrasia: oihu edo deiadar zoli eta bizia.

garrazta: inausi gabeko zuhaitz handia.

garretan: garra dariola.

gauzaeztana: inutila, balio ez duena.

gauzeztandu: balio ezean geratu.

gedar: hitz-zarata gogorra, matraka, haserre-deiadarra.

gesu baten: lasterrera, denpora gutxi barru, halako batean.

geundeke: egongo ginateke.

gogaitu: aspertu, aburritu.

gosebera: gosetsua.

haronakoa: hara eta honako joan etorria.

hazdui: haitz askoko tokia.

hede: larruzko estukina, buztarriak lotzeko etab.

hegillamu: hegia, hegi zelaia.

hesialdia: egurrezko hesiaren iraupena.

inausi: podatu.

indarga: indar barik, indar gutxiz

iski: apur bat, gauza arin bat, pixka bat.

itaxura: itogin, gotera, batez ere teilatu hegaletatik erortzen
dena.

itogina: itaxura, goterea, (teila bitarteetakoa).

iterantzuna: alusioa, ziria.

itsas-antzarra: egazti migraria, neguan iparretik ekialdera
joaten dena.

jakia: jatekoa.



jentila: basajauna, euskal mitologiako pertsonaia erraldoia.

kakadario: beldurrez kaka dariola, beldurti.

kakanarrua: txikia, borroa, erraldea (bost kilo).

kanikula: udako bero sano handia.

kankailoa: baldarra, trauskila.

katamixarra: urtxintxa.

ketea/keta: kedarrea edo sutondo gaine edo eta tximinietan sortzen den ke-harri gazi eta mingots handikoa. (Esaera bezala ere erabiltzen da zeozer oso gazi dagoenean: ketea baino gaziago dago.)

kikiribuelta: burua hanketan dela buelta egitea, gazt.: voltereta.

kiputu: atzamarrak zurizkatu, hozmindu, moteldu, beratu, bigun-zuritu urak edo hotzak.

kokorio: lelo, malbako, enbeleko, artaburu, ganorabako.

kokoterre: kokote eskasa, argala, zuloa eginda duena.

konortea: sena, zentzuna.

kortikea: zikinkeriazko azala, kostrea.

lain: beste.

lainabera: behelaino.

lastamarraga: arto-kapaxaz egindako koltxoia.

laurkindu: lau zati egin edo ebagi.

legarra: hausnartzaile gazteen urdailetan izaten den gaia.

Gaztaiak etab. egiteko erabiltzen da. Gaur kimikaz ere lortzen da likidoa.

loitzarria: lo egotetik itzartutera bitarteko uea.

lotsaria: lotsa handia.

mahasdui: mahasti.

mahats-morda: gazt.: racimo de uva.

makal: argal, meko.

mandamasa: beti agintzen dagoena.

mandazaina: astakirtena, kankailoa.

mantenitalde: lan egin mantentitu alde, batez ere kriadulanetan.

mantzina: txarra, gaiztoa, okerra, gazgina.

mantzinkeria: gaiztakeria, okerkeria.

mehatzunea: ilean, belarrean, basoan etab. garbiunea, berezkoa zein egina.

meko: argal, makal.

mendia hartu: bizitoki berrian egokitu, ohiturak onartu, hartara egin.

minfirua: mihiak azpian duen mihi-haria edo freniloa, hitzak ondo artikulatzeko behar beharrezkoa. Mozkortiaren berbeta ilunari ere minfiru-berba esaten zaio. (Esaera: gaur urlia minfiruaz dabil edo minfirua dauka, mozkortuta edo edanda dagoela adierazteko.)

moropila: korapiloa.

morralla: sorbaldatik eskegita eramateko zakutoa.

mutikoa: mutil gaztetxo.

nagiak atera: besoak eta abar luzatu, desperezatu.

nondik ahal: ahal den lekutik.

nor baino nor: nor gehiagoka.

oboan-oboan: inguratuz-inguratuz, bueltan-bueltan, ingurumarian.

odolak ur egin (esaera): haserre amorratua, disgustu ikaragarria.

oinberdinka: oin biak batera dirala saltoka.

okelua: bazterra.

orkolo-hatza: eskuko hatz lodia.

orpoetan har barik: arin, bizkor-bizkor, abantean, abiadan.

podazuz: poderioz.

poiiala: harrizko ezarlakua, zutabearen harrizko oinarria, podioa.

sabia: mintegia.

saia: putrea, txori handia.

sorots egin: bigilatu, zelatatu, sorotsi.

terzio: garai, sasoi, goiz, ordu.

trajura: itxura, patxada.

trauskila: ganorabakoa.

txankamehe: hanka meheak dituena.

txankerrea: hanka meheak edo argalak dituena.

txirran: bueltaka-bueltaka, bilinbolan.

txua: txistua, listua.

ukondoa hurbil baina ezin musurik eman (esaera): inor
edo ezer hurbil egon arren ezin lortu nahi dena.

urruza: emea, ganadu mota batzuetan.

uzkia: ipurdia, ipurtzuloa (batez ere animaliena).

zahagia: ardaotarako narru-ontzia.

zakutoa: zaku txikia.

zelanbaist: nolabait, zelan edo halan.

zina: zinezko baldea, ontzia, zink-metalezko ontzia.

zoli: bizkor, arin.

zura: egurra.

zurezko: egurrezko.



EGITURA BEREZIAK:

-(r)i deusala: ondoan baina ikutzen, apoiuan, arrimuan

-(r)i daukotsat, -tsazu...entzunda, esanda etab. = -(r)i entzuna diot...

-(r)ik hara: -tik segituan; -tik hur; aldetik

-(e)n baino + ez + aditza = ez + aditza + (e)n (zehar galdera)

zein...+ aditza (part. zein subj.): ...ean ere; ba... ere.

(gazt.: por si...)



*Euskal Herria, bere historia luzean zehar,
euskaldun izan eta euskaraz bizi izateko,
besteak beste, zuhurtasunean oinarritu da.
Ipuintxo, esaunda eta mitoz beteriko liburu
honetan ere, zuhurtasuna izango da nagusi
Perutzuk Jentil gaiztoari irabazteko.
Bide batez, euskara bizi, eder eta aberatsa
lagun duzula, euskaldunon urteetako kultura
sustraituan sartuko zara. Irakurri eta gozatu!*

ibaizabal

